

Harian

6 ■ Elkar ulertzeko deia PSE eta Batasunari



Donostiako manifestazioaren biharamunean, Erkorekak elkar ulertzeko eskatu die Batasunari eta PSE-EEri.

euskal herria 2020 (I) > ekonomia eta enplegua

Nortasuna, garapen tresna

Euskal Herria 2020 egitasmoaren arabera, garapen ekonomiko lortzeko Ipar Euskal Herriaren nortasuna baliatu behar da, eta enpresa txikiak izatearen errealitatetik abiatu.

ENEKO BIDEGAIN

Baiona

Nortasunak ematen dio indarra Ipar Euskal Herriari. Euskal Herria 2020 egitasmoa lantzen ari direnek «Euskal Herriko ondare natural eta kulturala baloratu eta babestu» behar dela diote, bertako ekonomia mantendu eta garatu nahi bada. Ipar Euskal Herriko hainbat gizarte eta ekonomia eragile gogoeta bat lantzen ari dira, 2020ra begira. Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak kudeaturik.

Itsasoa, mendia, paisaia eta euskal nortasuna dira, eragile horien ustez, Ipar Euskal Herria erakarri egiten dutenak. «Elkarrekin bizitzeko eta gauzak kolektiboki sortzeko gaitasuna» ere baloratu dituzte. Haatik, aukera horiek

arrisku bihur daitezke, adibidez «kalitatearen irudia gehiegi erabiltzen» bada. Hots, kasu egin behar da lurraldearen irudi hori bera histuko duen ekoizteko motak ez bultzatzea produktu bat kalitatearen izenean gehiago saltzeko asmoz. Horretarako, *Euskal Herria 2020* txostena landu dutenek diote, Ipar Euskal Herriaren erronka bizi kalitate horri eustea dela, hala nola lotura soziala mantentzea, ingurumena babestea ...

Horrek erran nahi du baliabide naturalak (ura, airea eta naturguneak) «hobeki kudeatu» behar direla. Eragile ekonomikoek energia berriztagarri, kutsaduraren murrizteari eta lekuko ekoizpenei baliario emateari begira kontzientzia harrarazteko tenorea dela dio txostenak. Halaber, errepideari alternatibak aurkitzeko premia ikusten dute ondoko urteetako erronken artean.

Lurraren arazoari ere aterabide bat aurkitzeko beharra aipatzen dute, ekonomia-erantzako lur sailak atxikiz. Garapen horrek lurralde osoa hunkitu behar duela eta koherentea izan behar dela dio txostenak. «Motor ekonomikoan aniztasunak» ematen dio dinamika ekonomia horri. Sektore zehatz batek krisia larri bat ukanez gero, aniztasun horri esker krisia horren ondo-



Bidarteko Kokolo jantzi-ekoizle enpresak euskal nortasuna erabiltzen du. GAIZKA IROZ

riook ez lirarteke beste toki batzuetan bezain larriak.

TURISMOAREN MUGAK. Turismoa ez dute aterabide bakar gisa aurkezten, duela zenbait urte bezala. Are gehiago, lehen bezala turistek zain eta haien kontsumotik bizitzeko logika pasiboa gainditu behar dela ohartarazi dute, egoera hori ere alda daitekeelako. «Beste eremuen kompetentzia indartzen ari da eta Ipar Euskal Herriko turismoa ez da nahiko ongi egituratua». Turismo-aktoreek jarrera aktiboa har dezaten aholkatzen dute txosten egileek. Horrek «zerbitzuen kalitatea hobetzea, euskal nortasunari baliario ematea, ingurumena kontuan

hartzea eta Hego Euskal Herriarekin lan egitea» erran nahi du.

Kezka sortzen du, hala ere, ekonomia gero eta gehiago zerbitzu ekonomia bihurtzeko. Horrek desoreka batzuk sor ditzake. Bizileku eta pausaleku gisa egituratzen ari den eremu horretan, ekonomia produktiboaren gainbehera gerta daiteke, are gehiago lurraren prezioaren krisia ikusiz. Industriasos-tengatzea Ipar Euskal Herriko erronka nagusi gisa aurkeztu dute.

Kontraesan bat ageri da, ordea, gazteek herrian bizitzeko eta lan egiteko duten gogoaren, jarraitzen dituzten ikasketen eta herrian bertan dagoen enplegu motaren artean. Horrek eragile ekonomikoak

gogoeta orokorrago batean ezartzera bultzatzen ditu, hots Hego Euskal Herriarekin eta Akitaniarekin batera enplegu eremu zabal bat ez ote den osatu behar.

Lanpostuak sortuko dira, ordea, datozen hamabost bat urteetan. Gaur egungo populazio aktiboaren %60 erretirara joanen da 2020 baino lehen. Gehienak enpresa txiki-txiki jabeak dira. Enpresa anitz segidari gabe gelditzeko arriskuan daude, eta horrekin batera sektore batzuk desager daitezke, eskulangintza bereziki. Enplegu horien irudiaren, lan baldintzen eta soldaten hobetzean dago eronketariko bat, baina baita prestakuntza eskaintzean ere.

BERNARD RODRIGUEZ Pirinio Atlantikoetako Ofizialeen Ganberako idazkariorde nagusia

«Lanbide prestakuntzari ere lekua egin behar zaio gure gogoetetan»

E. B.

Baiona

Bernard Rodriguez (Floirac, Frantzia, 1952), Ofizialeen Ganberako arduraduna, *Euskal Herria 2020* gogoetetan aritu da, eta ofizialeen ahotsa entzunarazi nahi du.

Gazte anitzek kualifikazio handiko enplegurako ikasketak egin dituzte, eta nekez aurkitzen dute haietako lan bat Ipar Euskal Herrian. Alderantziz, ofizio anitzetan langileak falta dira.

Hori kezagarria da, alde batetik. Eskaera eta eskaintza ez doaz bat.



GAIZKA IROZ

Eraikuntzan eta elikaduran ari diren nagusiek ez dute langilerik aurkitzen. Zailtasun handiak ditugu harakin izan nahi duten gazteak aurkitzeko. Hemen, enpresa gehienak txikiak dira. Eta enpresa txikietan ez dituzte baxotik landa bost urteko ikasketak egin dituztenak bilatzen. Haatik, apendizgoan ibili diren gazteen %75-80ek lan bat aurkitzen dute. Ez dute beti lan kontratu mugagabea ukaiten hasieratik, baina beti ari dira lanean non edo non. *Euskal Herria 2010-*

ean batek erran zuen bezala: «ingeniariak prestatzea ongi da, baina beti izango duzue harginen eta harakinen beharra».

Badea kontzientzia hartzerik?

Euskal Herria 2020 gogoetak leku handia ematen dio goi mailako irakaskuntzari. Baina lanbide prestakuntzari ere lekua egin behar zaio. Hala ere, azken urteetan indar handiak egin ditugu ofizio mota horien irudia hobetzeko, soldatak igoz, lan baldintzak txukunduz. Gero eta ikasle gehiago daukagu ofiziale eskoletan.

Ofizialeek segidaren arazoa dute. Nola konponduko da?

55 urtez gorako enpresaburuen artean transmisioaren prestatze lan sakon bat egin behar da. Urte franko lehenagotik hasi behar da transmisioari pentsatzen. Transmisioaren alorrean esku hartzen

duten eragile guztien arteko (notario, abokatu, banku eta abar) plataforma bat sortzea begi onez ikusiko nuke. Enpresaren segida hartzeko prest den norbait aurkitu behar da eta jabearekin harremanetan ezarri. Batzuetan arazoa sortzen da enpresaren eta hartzaileren nahiaren artean, besteak beste prezioaren inguruan.

Lurzoruaren prezioek nolako eragina dute enpresak sortzeko edo handitzeko?

Produktzio sektoreak arazo handia du lurzoruarekin. Baiona inguruan ez dago lurrik. Beraz enpresak Lapurdi erdialdean jartzen dira. Enpresak erakartzeko zinezko eskaintza bat egin behar da. Enpresak barnealdera joatea nahi badugu, zerbitzuak eskaini behar zaizkio inguruan. Merkantziak dituzten sektoreek bide nagusien ondoan izan behar dute.